

## DBHko 4. maila: Ibilbide HUMANISTIKOA

### LATINA

#### ZER IKASTEN DA LATINA IKASGAIAN? Bi eduki mota:

- **HIZKUNTZA: LINGUA LATINA**

**Metodo aktiboa** erabiltzen dugu:

Familia erromatar baten gorabeherak jarraitzen ditugu: Marcus, Quintus eta Iulia dira familia honetako seme-alabak. Ariketa asko ahoz egiten ditugu. Latina ahoan erabiltzen dugu, ez bakarrik paperean.

LINGUA LATINA FACILIS EST!

- **KULTURA GAIAK**




- Kondaira mitikoak: heroiak, munstroak, jainko/sak: Herkules, Orfeo, Teseo, Prometeo ...
- Erromaren historia: Julio Zesar, Oktavio Augusto, Marko Antonio, Kleopatra, ...
- Erromaren bizimodua: familia, gizartea, etxea, lana, festak, ...

#### **ERABILTZEN DITUGUN**

##### **BALIABIDEAK**

- Testu liburua: *Lingua Latina. Pars I. Familia Romana*, eta ariketa liburua: *Exercitia Latina I.*
- Pelikulak eta erreportaiak
- Ordenagailuak eta internet



**ESKOLATIK KANPOKO JARDUERAK:** Egun batean antzerkira joaten gara tragedia greziar bat eta komedia latindar baten antzezpena ikustera.

#### **NOLA EBALUATZEN DA IKASLEAREN LANA?**

- Azterketa idatziak
- Lanak
- Gelan izandako jarrera eta parte hartzearen balorazioa